




Inaziotar Bidea
Camino Ignaciano
Camí Ignasià

INAZIOTAR BIDEA

Loiolako Santutegitik
(Azpeitia) Manresara



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

EUSKADI
BASQUE COUNTRY





4. orri.

6. orri.

7. orri.

22. orri.

Aurkibidea

San Ignazio Loiolakoa

Erromes-agiriak

Inaziotar Bidea:

orri. **5** EUSKADI. 1.etik 6.era bitarteko etapak

orri. **10** ERRIOXA. 7.etik 11.era bitarteko etapak

orri. **13** NAFARROA. 12. eta 13. etapak

orri. **16** ARAGOI. 14. etik 20.era bitarteko etapak

orri. **19** KATALUNIA. 21. etik 27.era bitarteko etapak

Aholkuak

Inaziotar Bidea

Inaziotar Bidea Loiolako Ignazio zaldunak 1522. urtean egin zuen ibilbidean barrena doa, hots, jaioterritik, Azpeititik (Gipuzkoa), Kataluniako Manresa hiriraino doan bidea da. Bere konbertsio espiritualaren ondotik ekin zion erromesaldi hari, Loiolatik abiatutik eta Jerusalem hiri saildua helmuga zuela.

Gaur egungo ibilbidea osatzeko Sainduaren beraren oharak hartu dira oinarri eta, Ignazioren Loiolako sortetxean hasita (Azpeitian), Cova de Sant Ignasi deituriko leizera eramaten gaitu (Montserrateko Monasteriotik hurbil, Katalunian). Ibilbide luzea eta gogorra da.





Iñigo Loiolakoa

Iñigo Loiolakoa (San Ignazio), gaur egun mundu osora zabaldu den Jesusen Lagundiko sortzailea, 1491. urtean jaio zen Loiolan (Azpeitia, Gipuzkoa), eta Errege Katolikoen eta Espainiako Karlos I. eta Alemaniako V.aren zerbitzuko zalduna izan zen.

Gerrako zauri baten ondorioz, zangoa hautsi eta kirurgia mingarriak jasan behar izan zituen, eriondo luzea ekarri ziotenak. Suspertu bitartean, Kristoren eta sailduen bizitzak irakurtzen eman zituen orduak, ez baitzuen zalduntza-libururik eskuratzetik izan. Bizimodu horrek adoretu eta bihotza arintzen zion une haietan.

Esperientzia horien eraginpean heldu zion bere konbertsio-prozesuari, eta Jerusalemara erromes joatea izan zen hartu zuen lehen erabakia. Lehen desio horrek Montserrat eta Manresara eraman zion han ia urte batez biziz. Hortik Roma eta Jerusalemara bidaiatu zuen baina han ezin zenez geratu, Espainiara itzultzea erabaki zuen eta ebanjelioa predikatzeko ikasketak burutu.

Handik urte batzuetara, latina ikasteari ekin zion Bartzelonan, Alcalan, Salamancan eta Sorbonan. Arteetan Maisu titulua lortu zuen bertan, Filosofia eta Teologia irakasteko baimena eskuratuz hala. Parisko gelakideak batu egin zitzaizkion eta bizimodu soil eta apaleko Kristoren jarraitzaile bihurtu ziren denak. Gisa hartan hasi ziren, beste adiskide batzuekin batera, apaizgora bideratu zituen bizipen espirituala lantzen, halako moldez non Jesusen Lagundia asmatu eta eratu baitzuten gero.

Ignazio Loiolakoak hezkuntza-erakundeak sortu zituen, kristaugai judutar eta mahomatarrendako etxeak, emakume alderraiendako aterpe bat, eta diru-eskeak antolatu zituen txiroen eta gatibuen alde. Ignacio 1556. Urtean hil zen eta Gregorio XV. Aita Santuak 1622an kanonizatu zuen, Frantzisko Xabierkoarekin eta Teresa Avilakoarekin batera. Haren gorpuzkia Erroman dago, Gesu Elizan.





inaziotarbidetia
caminoignaciano
caminoignacia

Credencial expedida por (a):

Presenta a:

(Nombre) _____

(Apellidos) _____

(DNI) / Pasaporte nº _____

Nació en _____ el _____ / _____ / 20____

Y de nacionalidad _____

Que inició su peregrinación el _____ / 20____ en la ciudad/población _____ en dirección a La Casa de San Ignacio, en Manresa.

Se realizó su peregrinación a pie ☐ en bicicleta ☐ otro medio ☐

Y ha recibido, en el día de hoy, la presente Credencial de Peregrino, en la que se marca se estampó el sello de la localidad que correspondía, para acreditar su paso. Que San Ignacio de Loyola proteja a los peregrinos en su Camino y les ayude en su búsqueda personal, para Mayor Gloria y Servicio de Nuestro Señor Jesucristo.



Inaziotar Bideari loturiko erakunde hauetako edozeinetan eskura dezakezu erromes-agiria:

- Loiolako Santutegia (Euskadi).
 - San Ignazio Parrokia-eliza (Logroño).
 - Lourdes Parrokia-eliza (Tutera).
 - Pignatelli Zentroa (Zaragoza).
 - San Ignazio Parrokia-eliza (Lleida).
 - Jesulagunen Kuria (Bartzelona).
 - Inaziotar bidearen erromesen harrera gunea (Manresa).
- Hemen, Ignazioren Bidea ziurtagiria ere eskuratu ahal izango duzu.

Informazio gehiago lortu web-gune hau kontsultatuz: www.caminoignaciano.org/eu



Har ezazu zure
erromes-agiria
erromesaldia hasi
baino puska bat
lehenago.

EuskADI






> Loiolako Santutegia, Azpeitia



Bidea

Euskadin barrera

Ibilbidea euskal lurretan abiatzen da eta bi euskal probintzia zeharkatzen ditu: Gipuzkoa eta Araba. 6 etapa eta 126 kilometro dira guztira, GR120 marken bidez seinalaturik, bizipen paregabea ekarriko digutenak. Euskadiko bide-tartea izanen dugu erromesaldi osoko puskarik malkartsuena, baina sei eskualde ezagutzeko aukera ematen digu: Urola Garaia, Urola Erdia, Debagoiena, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea eta Arabako Errioxa. Bide-tarte horretan nafar lurretan sartu-atera labur bat egiteko aukera ere izanen dugu.



ETAPAK

- | | |
|--------------------------|---------|
| 1. LOIOLA > ZUMARRAGA | 17,5 km |
| 2. ZUMARRAGA > ARANTZAZU | 19,5 km |
| 3. ARANTZAZU > ARAIA | 17,7 km |
| 4. ARAIA > ALDA | 21,5 km |
| 5. ALDA > GENEVILLA | 23,3 km |
| 6. GENEVILLA > GUARDIA | 27 km |

LOIOLA > GUARDIA

(1.etik 6.era
bitarteko etapak) :
126 km

1

- > Loiolako santutegia.
- > San Ignazio Loiolakoaren sortetxea.
- > Burdinbidearen Euskal Museoa.
- > Garate dohatsuaren etxea.

2

- > Antiguako basiliza.
- > Mirandaola parkea.

3

- > Arantzazuko santutegia.
- > Oñati.
- > Arrikutz kobak.
- > Mitxarro Museoa.

4

- > Andre Mari basiliza erromanikoa.
- > Opakuako begiratokia.

5

- > Santikurutze Kanpezu.
- > San Bizente Martiriaren eliza.

- > Antoñana.
- > Vasco-Navarro Trenbidearen Bide Berdearen Interpretazio Zentroa.

6

- > Genevillako elizaren erretaula.
- > Genevillako aisialdiko gunea.
- > Usategi tradizionalak.
- > Genevilla.
- > Guardia.
- > Guardiako sotoak.
- > Sorginen Txabola dolmena.

> Antiguako basiliza barrutik



> Arantzazuko santutegia



ENO GASTRO NOMIA

- | Idiazabal JD gazta
- | Hestebeteak
- | Arabako patata
- | Babarrunak
- | Babak
- | Udaberriko zizak
- | Oliba-olio birjina estra, Arroizko aldaera.
- | Azkoitiko 'Makarroiak' eta Azpeitiko 'Ignazioak'.
- | Arabako Errioxako ardoa
- | Txakolina
- | Sagardoa



TURISMO BULEGOAK

UROLA ERDIA
Tel. 943 151 878
i-loiola@urolaturismo.eus

URRETXU - ZUMARRAGA
Tel. 943 722 042
turismobulegoa@urolagaraia.com

ARANTZAZU - OÑATI
Tel. 943 718 911
turismobulegoiena@eus

KANPEZU - ARABAKO MENDIALDEA
Tel. 945 405 424
info@montanaalavesa.com

GUARDIA
Tel. 945 600 710
turismo@laguardia-alava.com



ERRIOXA



ETAPAK

7. GUARDIA > NAVARRETE	19,6 km
8. NAVARRETE > LOGROÑO	13 km
9. LOGROÑO > ALCANADRE	31 km
10. ALCANADRE > CALAHORRA	21 km
11. CALAHORRA > ALFARO	24 km

Bidea

Errioxan barrena

Bideak Errioxako Navarrete, Logroño, Alcanadre, Calahorra eta Alfaro herriak zeharkatzen ditu, Historiaz beteriko lurrak denak. Etapa horietan errioxarren abegiaz ohartuko gara eta, bidetik zertxobait urrunduz gero, modua izanen dugu probintziako baliabide turistiko paregabeek gozatzeko ere. Berta-bertako gastronomiak, berriz, landare-kontserbak eta Errioxako ardoa oinarri dituenak besteak beste, parada emanen digu lur horietako mamia ahogozatzeko.

GUARDIA > ALFARO

(7.etik eta 11.era
bitarteko etapak):
108,6 km

7

- > Navarreteteko Hilerriko Ate Erromanikoa (XII. mendea).
- > San Joan Akrekoaren Ospitalearen hondakinak.

8

- > La Grajerako lakua eta mendatea.
- > San Blas merkatua.
- > Errioxaren museoa.
- > logroñoko Andre Maria katedrala (XV. mendea).

9

- > Aguas Mansas gaztelua.
- > Alcanadreko Andre Maria eliza.

10

- > Calahorrako katedrala.
- > Erromanizazioaren museoa.
- > Barazkiaren museoa.
- > Calahorrako baratzeetan barnako ibilbidea.

11

- > Alfaroko San Migel kolegio-eliza.
- > Zikoinen begiratokia.
- > Ebroko zalduen natura-erreserba.



> Santa María de la Redonda Katedrala, Logroño

ENO
GASTRO
NOMIA

- | Errioxako jatorri deitura kalifikatuko ardoa
- | 100 upeldeg, bisitaldi turistikoetarako zabalik (www.lariojaturismo.com)
- | Errioxako olio
- | Calahorrako barazkiak eta Rincón de Sotoko udareak
- | Chamarito arrazako bildotsa
- | Kontserbak
- | Calahorrako bazkariak



 **TURISMO BULEGOA**

ERRIOXA
Tel. 941 291 260
info@lariojaturismo.com

NAFARROA



> Ebro ibaia, Tuteria



> Andre Maria katedrala, Tuteran



> Monreal dorrea, Tuteran

Bidea Nafarroan barrena

Mendi malkartsuetatik Ebro ibaiaren ordokietaraino, Nafarroako Foru Komunitateak Iberiar Penintsulako bazterrik ederrenetakoak dauzka bere baitan. Tradizio ignaziotarreen, gainera, garrantzi berezia du Nafarroak, **San Frantzisko Xabier**koaren familiaren sorlekua delako, Ignazio Loiolakoaren lagunkidea bera, eta hura bezain erromes handia. Historiak dio San Ignazio Loiolakoak Iruña defendatu zuela 1521ean eta zauriturik erori zela armada frantziar erasotzailearen eta aliatu nafarren aurrean. Garai hartan, Karlos Enperadorearen zerbitzuan ziharduen Ignaziok, borrokalari harro eta leiala sentituz, eta, zenbait urte geroago, kristau-fedea jarraitzeari eskaini zion izaera suhar hori.



ETAPAK

- | | |
|---------------------|-------|
| 12. ALFARO > TUTERA | 23 km |
| 13. TUTERA > GALLUR | 38 km |

ALFARO > GALLUR

(12. eta 13. etapak):
61 km

12

- > Castejongo burdinbidearen museoa.
- > Tuterako katedrala.
- > Foruen plaza.
- > Tuterako Monreal dorrea.

13

- > Cortesko gaztelua.



ENO
GASTRO
NOMIA

> Tuterako Orburuak

- | Erriberako barazkiak
- | Lodosako pikillo piperrak
- | Tuterako orburua
- | Nafarroako zainzuria
- | Hestebeteak
- | Kontserbak
- | Nafarroako ardoa
- | Errioxako ardoa
- | Nafarroako olioak



> Foruen plaza, Tuter



TURISMO BULEGOA

TUTERA
Tel. 948 848 058
oit.tudela@navarra.es



ARAGOI

ETAPAK

14.	GALLUR > ALAGÓN	23 km
15.	ALAGÓN > ZARAGOZA	31 km
16.	ZARAGOZA > FUENTES DE EBRO	29 km
17.	FUENTES DE EBRO > PINA DE EBRO	12 km
18.	PINA DE EBRO > BUJARALÓZ	37 km
19.	BUJARALÓZ > CANDASNOS	21 km
20.	CANDASNOS > FRAGA	23,8 km



> Monegroetako basamortua



Bidea Aragoin barrena

Aragoiko lurrak, Ebro ibaiak bustirikoak eta bidaiarien iraganbide aspaldikoak. Ibaibideak Mediterraneo itsasora lotzen ditu lurrok, eta milaka urteko kulturen komunikazio bidea ere bada Aragoi. Islamaren lorratzak arkitektura mudejarreko adibide ugari eta ederrak utzi dizkigu lurrotan, UNESCOk Munduko Ondare izendatu dituenak.

Zaragozako Pilareko Andre Mariak San Ignazioren bidetik doazenak babestuko ditu. Zeren Ebroko lur jorien ondotik Monegroetako basamortuko edertasun latza dator.

GALLUR > FRAGA

(14.etik eta 20.era
bitarteko etapak):
176,8 km

14

> Gallur: **Aragoiko Ubide Inperiala eta ubideko soto zaharra.**

> Alagón: **San Pedro apostoluaren eliza mudejarra. Kulturaren Etxea (Goyak apainduriko eskailera).**

15

> Zaragoza: **Pilareko Eliza Nagusia, La Seo katedrala, Alfajereria jauregia.**

16

> Fuentes de Ebro: **San Migel goiaingeruaren eliza.**

17

> Pina de Ebro: **Andre Maria eliza, San Frantziskoren komentua, dorre zaharra.**

18

> Bujaraloz: **Santiago eliza, Torres Solano jauregia eta Sástago eta Bujaralozgo Las Saladas aintzira gaziak.**

20

> Fraga: **San Pedro eliza, Montcada jauregia, Villa Fortunatus-ko aztarna erromatarak.**

ENO
GASTRO
NOMIA

Jatorrizko izendapendun produktuak:

- | Teruelgo urdaiazpikoa
- | Fuentes de Ebroko tipula
- | Aragoiko bildotsa
- | Calandako mertxika
- | Moncayo Mendiko olioia
- | Behe Aragoiko olioia
- | Cava
- | Almudevarko txirikorda

- | Borraja
- | Girtlatxe turroia



TURISMO BULEGOAK

ALAGÓN

Tel. 976 611 814
turismoalagon@hotmail.com

ZARAGOZA

Tel. 976 796 398
turismodearagon@aragon.es

FRAGA

Tel. 974 470 050
turismo@fraga.org



> San Pedro eliza, Fraga




KAT-ALUNHA

Bidea


Katalunian barrena

Inaziotar Bidearen azken etapetan Terres de Lleida eta Paisatges Barcelona marka turistikoetako lurak zeharkatzen dira, Segrià, Pla d'Urgell, Urgell, Segarra, Anoia eta Bages eskualdeetan barrena baitoa bidea. Manresako San Ignazioaren leizera iritsi aurreko 183 kilometroek aukera ematen dute barnera begirako bidaia espiritual batez gozatzeko, eta, aldi berean, zeharkaturiko naturgune, herri eta hiri ederrak ezagutzeko.



ETAPAK

21. FRAGA > LLEIDA	33 km
22. LLEIDA > EL PALAU D'ANGLESOLA	22,7 km
23. EL PALAU D'ANGLESOLA > VERDÚ	24,7 km
24. VERDÚ > CERVERA	16 km
25. CERVERA > IGUALADA	37 km
26. IGUALADA > MONTSERRAT	26,8 km
27. MONTSERRAT > MANRESA	23,5 km



FRAGA > MANRESA

(21.etik 27.era
bitarteko etapak):
183,7 km

21

> **Lleidako La Seu Vella katedrala.**

22

> **Les Garriguesko Olioaren ibilbidea.**

23

> **Sant Bartomeu komentua.**

24

> **Cerverako unibertsitatea.**

25

> **Larruaren museoa.**

26

> **Montserrat mendiko natura-parkea.**

27

> **San Ignazioren leizea.**
1522an, Ignazio Loiolakoa oinez joan zen Montserratetik Manresara eta 10 hilabete baino gehiago igaro zituen bertan. Otoitz lekutarako baliatu zuen leizean dago egungo Espiritualtasun Zentroa.



Kataluniako tarteetan ardo-gintzako 12 jatorrizko izen-dapen daude ~300 upeltegi baino gehiago bisita daitezke eta jarduera enoturistiko mordo bat dago aukeran-, baita mundu zabalean ospea duen gastronomia ere, Mediterraneoko dieta eta kalitate aitortuko produktu hurbilak dituen oinarri, hala nola, olio, ardo, fruta -Lleidako udarea, esaterako- eta turroiak.



ARGIBIDE GEHIAGO

Cova de Sant Ignasi, Manresa
www.covamanresa.cat

Paròquia basílica de Santa Maria de la Seu, Manresa
www.seudemmanresa.cat

Seu Vella, Lleida
www.turoseuvella.cat

Convent de Sant Bartomeu, Bellpuig
www.bellpuig.cat

Casa santuari de Sant Pere Claver, Verdú
www.verdu.cat

Monestir de Montserrat
www.montserratvisita.cat


Centre d'Acollida de Pelegrins del Camí Ignasià
www.manresaturisme.cat

Agència Catalana de Turisme
www.catalunya.com

Ask the office (turismo bulego birtuala)
www.facebook.com/catalunyaexperience

Diputació de Barcelona
www.barcelonaesmoltmes.cat

Patronat de Turisme de la Diputació de Lleida
www.aralleida.cat



Aholkuak



1

Presta itzazu zure ibilbide eta ostatu lekuak
gune hau kontsultatuz:

www.caminoignaciano.org/eu

2

Kontuan har itzazu zure mugak: denbora,
dirua eta zure sasoia.

3

Ez eraman gehiegizko pisurik motxilan,
eta aukera itzazu oinetako eroso eta egokiak.

4

Etapak antolatzeko, erabil itzazu hemen aurkituko
dituzun argibide praktikoa eta espiritualak:

Inaziotar Bideko gidaliburu ofiziala eta
www.caminoignaciano.org/eu



Goza ezazu Bideaz, topatzen duzun
jendeaz, bisitatzen duzun ondareaz,
gastronomiaz, paisaiez, etab.
Bizipen berdingabea da bidea!

Nola dago seinaleztaturik bidea?

- Euskadin: GR 120 markak dituzten zutoin adierazleak.
- Errioxan: norabide seinaleak eta gezi laranja.
- Nafarroan: norabide seinaleak eta gezi laranja.
- Aragoiaren: gezi laranja.
- Katalunian: seinale adierazleak, Donejakue bideko plakak, eguzkiak eta gezi laranja.



Egin al dezaket bidea bizikletaz?

- Bai; kontsulta itzazu ibilbide alternatiboak web-gune honetan:
www.caminoignaciano.org/eu





Loiola Zumarraga Arantzazu Araia Alda Genevilla Guardia Navarrete Logroño Alcanadre Calahorra Alfaro Tudera Gallur Alagón Zaragoza Fuentes de Ebro Pina de Ebro Bujaraloz Candanos Fraga Lleida Palau d'Anglesola Verdú Cervera Igualada Montserrat Manresa

